

"Euskal Herria, jaiki hadi eta eman hadi bidean..." leloarekin hasten zen orain dela 20 urte Euskal Herria zeharkatu zuen Askatasunaren Ibilaldiaren agiria. Garai historiko hartan ezberdintasunak albo batera utzi eta Euskal Herriaren bizi grina lau haizetara zabaldu genuen, aspaldian izan den mobilizaziorik jendetsu eta zabalenean. Zihur oraindik gogoratzen duzula edo inoiz aipamenik entzun duzula. Etapa baten amaiera zen. Itxaropena nagusitu zen, aldaketa gogoak eta gure etorkizuna geuk erabakitzekeo desioak gutaz jabetu ziren.

Hogei urte igaro dira, gauzak asko aldatu dira eta urrats garrantzitsuak ere eman ditugu, baina lehen bezala orain ere erronka bat dugu. 2000. urtearen atarian gaude eta Euskal Herriak oraindik ez du eskuratu bere etorkizunaren jabe izateko eskubidea. Euskaldunok zatikatzen gaituzten muga artifizialek hor diraute, egoera sozioekonomikoan atzera egin dugu, euskara oraindik arriskuan dago hainbat lekutan,... Gure historiaren protagonistak izan nahi dugu.

Horregatik, berriro ere, euskaldunok batu beharra daukagu. European badira hainbat herri bere bideari ekin diotenak eta euskaldunok ere eskubide hori berreskuratu nahi dugu. Euskal Herria bidera atera behar da eta orain dela 20 urte bezala, aurten berriz izango dugu aukera abertzale guztiok Askatasunaren Ibilaldian parte hartzeko. Izan ere, ekainaren 29an Iruñeatik abiatuko da Abialdian, Gernikan amaitzeko uztailaren 26an. Eta orduan moduan orain ere, gure ezadostasunak albo batera utzi, eta ibilaldiari ekin behar diogu gure Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzekeo aukera izan dezagun.

Denontzat izango da tokia. Zapatillak ondo lotu eta atera zaitetz bidera, Euskal Herriaren etorkizuna gure esku bait dago.



**ALTZAko
BILERA
Larunbata
honetan
eguerdiko
12etan
HERRERAko
AUZOTEGIAN
AZALDU ZAITEZ(TE) !**

"Euskal Herria, jaiki hadi eta eman hadi bidean..." leloarekin hasten zen orain dela 20 urte Euskal Herria zeharkatu zuen Askatasunaren Ibilaldiaren agiria. Garai historiko hartan ezberdintasunak albo batera utzi eta Euskal Herriaren bizi grina lau haizetara zabaldu genuen, aspaldian izan den mobilizaziorik jendetsu eta zabalenean. Zihur oraindik gogoratzen duzula edo inoiz aipamenik entzun duzula. Etapa baten amaiera zen. Itxaropena nagusitu zen, aldaketa gogoak eta gure etorkizuna geuk erabakitzekeo desioak gutaz jabetu ziren.

Hogei urte igaro dira, gauzak asko aldatu dira eta urrats garrantzitsuak ere eman ditugu, baina lehen bezala orain ere erronka bat dugu. 2000. urtearen atarian gaude eta Euskal Herriak oraindik ez du eskuratu bere etorkizunaren jabe izateko eskubidea. Euskaldunok zatikatzen gaituzten muga artifizialek hor diraute, egoera sozioekonomikoan atzera egin dugu, euskara oraindik arriskuan dago hainbat lekutan,... Gure historiaren protagonistak izan nahi dugu.

Horregatik, berriro ere, euskaldunok batu beharra daukagu. European badira hainbat herri bere bideari ekin diotenak eta euskaldunok ere eskubide hori berreskuratu nahi dugu. Euskal Herria bidera atera behar da eta orain dela 20 urte bezala, aurten berriz izango dugu aukera abertzale guztiok Askatasunaren Ibilaldian parte hartzeko. Izan ere, ekainaren 29an Iruñeatik abiatuko da Abialdian, Gernikan amaitzeko uztailaren 26an. Eta orduan moduan orain ere, gure ezadostasunak albo batera utzi, eta ibilaldiari ekin behar diogu gure Euskal Herriaren etorkizuna erabakitzekeo aukera izan dezagun.

Denontzat izango da tokia. Zapatillak ondo lotu eta atera zaitetz bidera, Euskal Herriaren etorkizuna gure esku bait dago.



**ALTZAko
BILERA
Larunbata
honetan
eguerdiko
12etan
HERRERAko
AUZOTEGIAN
AZALDU ZAITEZ(TE) !**